

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Aspaldiko adiskidea



ARITZ GALARRAGA

Anxo Lugilde da kazetari bat tarteka jarraitu izan dudana, batez ere Galiziaz gehiago jakiteko, noski, galiziarra izanik: baina baita Kataluniaz ere, gibel asmo galiziarra galdu gabe, bertan bizi izan baita urte luzez, eta lan egin baitu *La Vanguardia* egunkarian edo RAC1 irratian –eta *Praza Pública* agerkarian–. Esango nuke bera izan dela garai batean Feijóo presidentea, Neurritsua ezizenez ezagunagoa, estu hartu duen bakarretakoa. Noski, horren ondorioz izan da Galiziako hedabide ofizialeetatik ezabatua. Ez bakarrik, bestela ere, desagertu bezala egiten zen batzuetan, sei hilabete, hamabost, zazpi aste azken aldian. Agertu zen arte esanez bazuela aspaldiko adiskide bat, azken hogeita hamar urte luzeetan bere ondotik joan ez dena, azken lau urteetan hiru aldiz eraitsi duena: depresioa, anglosaxoiek zakur beltza deitzen dutena.

Liburu batean bildu du orain esperientzia hori, hiru eletan, gaztelania, katalan, galego, Bartzelonako osasun zentro batean eman zituen hilabeteetan ondu zuen egunkaria. Liburu argigarria, gaixotasun ezezaguna baita depresioa, milaka eta milaka lagunek pairatzen duten arren. Gorputzaren beste edozein partetako patologia bat bezalakoa, miopia, diabetea edo tuberkulosia, baina ez hanka, ez bihotza, burua erasaten duena. Ari-maren gaixotasuna, mekanismo kimikoen bitartez gorputzean adierazten dena, bizitzeko gogoia bera kenduz: ez alferrik, suizidio kausa nagusia da, heriotza ez naturalen artean lehenengoa. Burmuinak lan egiten du zure kontra. Eta gero dakartza lotsa, estigma, errua, ez ulertu, ez onartu, aintzakotzat ez hartzea. Segur aski, artista, idazle, intelektualen kasuan, pertsonaiarekin batera doala dirudien osagaia; kazetari baten kasuan diferentea da. Eta, badakit, pasatzen gara umoreaz hitz egitetik depresioaz hitz egitera. Baina, zer nahi duzue, ez naiz ni, da bizitza. Gainera, depresioaz ere barre egin daiteke, Lugildek bere jardunean, tarteka, zorigaitzaren erdian, erakusten digun bezala. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Eskola publikoa

Milaka lagun bildu dituen manifestazioan, Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak eskola publikoari "lehentasun osoa" emateko eta hezkuntza pribatu eta itunduari "mugak jartzeko" eskatu dio Eusko Jaurlaritzari.

COVID-19

Lehen Hezkuntzako ikasleek berriz ere musukoa jarri behar dute joan den astelehenetik Ipar Euskal Herrian. Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 88 kutsatueta dago Pirinio Atlantikoen departamentuan eta horregatik hartu dute erabakia.

5G antena

5G antena bat jarri nahi duten eremua okupatu dute Donamartirin. Obrak azaroaren 2an ziren hastekoak, baina pasabidea blokeatua dio Arberua Bizirik kolektiboak Free enpresari. Pasa den martxoan ere blokeatu zituzten obrak.